

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### HEZKUNTZA SAILA

## 3117

*EBAZPENA, 2020ko uztailaren 27koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Honen bidez, argitaratu ematen da Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 14ko Aginduaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskatzaileen Kidegoan sartzeko deitutako lehiaketa-oposizioan hautatutako izangaien behin betiko zerrenda.*

Epaimahaiak aukeratutako izangaien behin-behineko zerrenda egin zuen, Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 14ko Aginduaren 8. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritz; agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoan sartzeko oposizio-lehiaketaren deialdia egin da. Eta Agindu horren 9. oinarrian aurreikusitakoaren arabera, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2020ko uztailaren 21eko Ebazpenaren bidez, hautatutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratu zen.

Erreklamazioak aurkezteko epea bukatuta,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen eranskinean argitaratzea Hezkuntza sailburuaren 2019ko azaroaren 14ko Aginduaren bitartez deitutako Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskatzaileen Kidegoan sartzeko lehiaketa-oposizioan hautatutako izangaien behin betiko zerrenda.

Ebazpen hau, behin betiko zerrendarekin batera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, baita Interneteko helbide hauetan ere: <http://www.irakasle.eus> («erabiltzailea» eta «pasahitza») – Hautaketa-prozesuaren jarraipena – klikatu «kidegoa» – Hautespen batzorde eta <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-langileak/> («2019ko EPE. Hezkuntza Ikuskaritza»).

Bigarrena.– Hogei egun naturaleko epea irekitzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hautatutako izangaiek Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 14ko Aginduaren 10.1 oinarrian adierazitako dokumentuak aurkez ditzaten. Aurkeztuko beharko da helbide honetan: <https://irakaslegunea.euskadi.eus/> (NAN/AIZ + Pasahitza, edo XLNetseko erabiltzailea, halakorik badago) – «EPE Ikuskaritza: hautatutako izangaien dokumentazioa entregatzea».

Ezarritako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, dokumentazioa aurkezten ez duten pertsonak, edo, dokumentazioa aztertu ondoren, ondorioztatzen bada aipatutako aginduaren 2.1 eta 2.2 oinarrietan adierazitako betekizunaren bat betetzen ez dutela, karrerako funtzionario izendatzeko dituzten eskubide guztiak galduko dituzte, hasierako eskabidean faltsukeria egin izanagatik merezi dezaketen erantzukizunaren kaltetan izan gabe.

Hirugarrena.– Praktika-fasean hasteko epea ikasturte batez atzeratu behar duten pertsonak, aldi baterako ezintasun-egoeran, amatasun-bajan edo ezinbesteko beste kasu batean egoteagatik (salbuespenezko egoera, ustekabekoa eta saihestezina), praktika-fase hori egitea eragozten badiete, idatziz eskatu beharko diote Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari, bost egun balioduneko epean, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian

2020ko abuztuaren 3a, astelehena

argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egiaztagiriak erantsita. Zuzendaritza horrek dagokion ebazpena emango du, eskaera onartuz edo ukatuz. Atzeratze-epea amaitutakoan, praktika-fasean sartzen ez denak karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko ditu.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 27a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,  
JON KARLOS AGUIRRE HUERGA.

2020ko abuztuaren 3a, astelehena

## ERANSKINA

## KIDEGOA: HEZKUNTZAKO IKUSKARIA

Txanda: A

***6853**	Agudo Tamayo, Ángela	2HE	06.9020
***3221**	Arakama Karrera, Jose María	2HE	07.7301
***0322**	Bustinza Vicandi, Ainhoa	2HE	04.8075
***2047**	Cabria Rueda, María Begoña	2HE	08.8377
***3879**	Castillo San Román, Marta	2HE	03.9350
***1543**	Cuesta González, Jose Miguel	2HE	06.9141
***0374**	Delgado Sola, María Arantzazu	2HE	04.6437
***8938**	Eguiraun Iturbe-Ormaeche, Asier	2HE	05.7662
***7072**	Elosegui Ibarbia, Xabier	2HE	05.6542
***8096**	Epelde Murguia, Alicia	2HE	08.0432
***4972**	Fernández Pedrejón, M. <sup>a</sup> Jesus	2HE	06.4721
***6944**	Irazoqui Aguirre, Marta	2HE	08.5572
***9211**	Ituarte Pérez, Maider	2HE	06.4743
***9935**	Lasso De La Vega Martínez, Inmaculada	2HE	04.9973
***7320**	Meijide Bermudez, María	2HE	07.7798
***8999**	Morrás Goikoetxea, Mikel Gotzon	2HE	06.3779
***9440**	Mosquera Lacalle, Virginia	2HE	06.2322
***7464**	Núñez Lozano, Juan Manuel	2HE	04.2215
***6434**	Pujana Uriarte, Ainhoa	2HE	08.0405
***1971**	Ruiz Fernández, Margarita	2HE	06.1987
***7834**	Ximeno Malatsetxebarria, Asier	2HE	04.5268
***7205**	Zabaleta Ibañez, Miren Nekane	2HE	08.6175